

DV **KIROLOAK**

EL DIARIO VASCO
OINARRIZKO KIROLAREN GEHIGARRIA
Nº 749 OSTEGUNA 13.10.10

JUDOA. BEDERATZI DOMINA
GIPUZKOARRENTZAT SAN MARTZIAL
TXAPELKETAN. 4. ORRIALDE ALDEA



ZURE TALDEARENTZAT INTERNET GUNEA:
BLOGAK, IRUDI GALERIAK, ALBISTEAK...

HAIZEA ALDE

Club Nautico de San Sebastian taldeko Jaime Framix, donostiarra da Euskal Ligako sailkapen nagusiko liderra Optimist klasean. **2. ORRIALDEA**



Bere itsasontzian ziztu bizian dabil Jaime haize-ufadek jotzen dutenean. Ezustekorik ez bada, Espainiako Kopan izango da datorren martxoan. **UNCITI**

ASTEKO ARGAZKI BILDUMA



Futbola. Joseba Rotetak zuzentzen duen Ostar taldea lidergoan kokatu da Ohorezko Dibisio Erregionalen sailkapenean Beti Gazterekin batera. :: TXEMA VALLES



Atletismoa. Martuteneko krosa jokatu da larunbatean, goizeko 10.00tik aurrera, 6,6 kilometro ibilbidean. :: ARTXIBOA

AZALEAN

:: IOSU GORROTXATEGI

Hamaika urte baino ez ditu eta hala ere, Optimist klasean, Euskal Ligako sailkapen nagusiko lidergoan kokatu da lehen bi estropadetan lortutako emaitzei esker. Denboraldiari hasiera ona eman dio Club Nautico de San Sebastian taldean dabilen Jaime Framix donostiar gazteak eta berarekin egon gara aste honetan Donostiako portuan bertan.

-Euskal Ligako liderra zara lehen bi estropaden ostean. Espero al zenuen?

-Pozik nago. Lehen estropada Hondarribian jokatu zen irailaren erdialdera eta han olatu dezente zegoen, baita korranteak ere. Estrategia ondo pentsatu arren, ontzia irauli egin zitzaidan hasieran eta gauzak ez zitzaizkidan nahi bezala ateratu. Bigarren postuan amaitu nuen alebin mailan eta estropada Manex Albisuk irabazi zuen.

-Nahiko emaitza ona beraz...

-Bai, baina hobeto joan zaizkit gauzak Bilboko bigarren estropadan. Haizeak nahiko indartsu jotzen zuen eta seitik hiru txanda irabazi nituen. Horri esker kokatu naiz lidergoan alebin, infantil eta kadete mailak batzen dituen sailkapen nagusian.

-Helburua lehen postu horri eustea izango da orain, ezta?

-Bai, baina beste helburu bat ere badago denboraldi hasiera honetan. Lehen hiru estro-

«Volvo Ocean Race estropada da nire ametsa»

Alebin mailakoa izan arren, Euskal Ligako sailkapeneko liderra da Jaime Framix donostiarra lehen bi estropaden ostean

Ontzia alde batera eta bestera okertzea funtsezkoa da uraren erresistentzia txikituz eta azkar joateko.

UNCITI



padetan erabakiko da datorren martxoan euskal selekzioarekin Espainiako Kopara nor joango den eta irailan, denboraldiko helburuak finkatu genituenean, hori zen lehena. Horretarako lehen sei sailkatuen artean egon beharko dut bi aste barru ligako hirugarren estropada jokatu eta gero.

-Arraroa litzateke zu ez sailkatzea...

-Bai. Hortik aurrera, Espainiako txapelketarako txartela lortzea izango da beste erronka nagusia. Horretarako lehen sei sailkatuen artean egon beharko dut Euskal Liga amaitzen denean.

-Eutsiko al diozu lidergoari amaiera arte?

-Ba, ez dakit. Ni saiatu egingo naiz, baina ez dizkidate gauzak batere erraz jarriko Hondarribiako Itsaskari Baita taldekoek. Bigarrena zortzi puntura dago eta bederatzia puntura hirugarrena. Abantaila polita dela esan dezakegu, baina ez erabakigarria. Oraindik ere bost estropada daude jokatzeko eta horietako bakoitzean sei txanda egingo ditugu.

-Nolatan murgildu zinen bela munduan?

-Gure familian beti egon da bela-zalatasun handia eta ni sei urterekin hasi nintzen aitona eta aitarekin Galizia aldean. Haiekin eman nituen lehen urratsak kiról honetan. Gerorako, zazpi urte bete nituen urte berean sartu nintzen Club Nautico de San Sebastian taldean.

-Aizu, bitxikeria bat. Zure familiakoa omen da munduari itzulia eman zion Julio Villar nabigatzaile donostiarra. Bartzelonako portu-

Zure argazkiak argitaratu eta konpartitu itzazu hurrengo webgunean <http://canales.diariovasco.com/dvkirolak/> eta dvkirolak@aragi.com



Txirrindularitza. Xabier San Sebastian, Ander Alonso eta Julen Irigoyen izan dira lehen hiru sailkatuak Zumaiko Uda Sarian. :: GTXE



Gimnasia erritmikoa. Izar Leku taldeko gimnastak, Nagore Sanz entrenatzailearekin, joan den asteburuan Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan izan duten txapelketan. :: ARTXIBOA

«Denboraldiko lehen helburua da Espainiako Kopara euskal selekzioarekin joatea»

«Ez dizkidate gauzak batere erraz jarriko Hondarribiako Itsaskari Baitako klubekoek»

«Ohore handia izan zen Bilbon garaikurra Iker Martinez de Lizarduyren eskutik jasotzea»

tik irten zen 1968an eta lau urte beranduago, 1972an, ailegatu zen Lekeitiora plane-tako itsaso eta ozeano zabalak zeharkatu ostean. 'Eh, Petrel' izeneko liburuan laburbildu zituen lau urte horiek...

-Haizearen bultzadaz soilik baliatuta, munduari bira eman zion lehen gizakia izan omen zen. Hori da hori abentura!

-Zer du ba belak hain erakar-garria?

-Itsasoan egiten da, dibertigarria da eta toki askotara bidaiatzen dugu gainera, besteak beste, Palmara, Bilbora, Palamosera, Xixonera, Vigora eta Torrevejara, baita Frantzia aldera ere. Leku guztietan dauzkate lagunak.

-Datorren azaroan Vigora joango omen zarete nazioarteko estropada batetan parte hartzerara...

-Han hirurehun ontzi inguru arituko gara Optimist klasean, Europa osokoak, baita brasildarren bat eta argentinarren bat ere. Maila honetako estropada garrantzitsuetan herrialde desberdinetako talde nazionalak parte hartu ohi dute eta ezinezkoa izango da haien aurrean garaipena lortzea, baina, hori jakinda, bestelako mentalitatearekin joango gara, flota handietan nola nabigatu behar den ikastera, alegia. Nik nahiago dut jende askorekin nabigatzea. Horrelakoetan, irteeran ez daude denak zuri begira eta askatasun gehiago daukazu zurea egiteko.

-Estrategiak garrantzia handia du kirol honetan...

-Bai, baina niri ez zait zailegia iruditzen haize eta korronteek nondik nora jotzen duten irakurtzea. Besteei begiratuta, erraz ikusten da hori. Nik esango nuke, estrategiaz gain, ontziari abiadura ematen jakitea dela garrantzitsuenak. Ontzia alde batera eta bestera okertzen eta bela leku egokian jartzen jakin behar da haizearen indarra ahalik eta gehien baliatzeko. Lurrean aurrez egiten den lana ere oso garrantzitsua da.

-Optimist klasean hasten zarete denak. Egunen batean klasez aldatzeko asmoa

al daukazu?

-Hamabost urte bete arte arituko naiz klase honetan eta hortik aurrera, ez dago oso garbi zeintzuk izango diren aukerak jubenil mailan. Gaur egun bi dira aukerak maila horretan: 420 klasea, bakarka nabigatu nahi dutenentzat, eta Laser klasea, banaka aritu nahi dutenentzat. Edozein modutan, nik lau urte dauzkate oraindik aurretik Optimist klasean ikasi eta gozatzeko.

-Astean zenbat entrenamendu egiten dituzue?

-Urteko asteburu guztietan entrenatzen dugu, inoiz ez astean zehar. Normalean, klubeko arteko estropadak antolatzen ditugu txapelketarik ez dagoenean. Klubean, klase honetan, hogei gazte inguru gara eta beste guztiei etor daitezela esango nieke. Uretan ondo pasatzen dugu eta toki askotara joaten gara gainera. Neguan ondo babestu eta ez dugu hotz handirik pasatzen.

-Zein ametsa daukazu bela munduan?

-Amesten hasita, gustatuko litzaidake egunen batean kirol honetan profesional izatea eta Volvo Ocean Race edota America's Cup bezalako estropada handietan parte hartzea, baina horiek ametsa dira, besterik ez.

-Gipuzkoan badaukazu zein ispiluri begiratu, izan ere, horrelako estropada handietan ibilitakoak baitira Xabi Fernandez eta Iker Martinez de Lizarduy...

-Ikerrek eman zidan garaikurra Bilboko estropadaren ostean eta ohore handia izan zen niretzat. Logelan jarri dut beste sari guztiekin batera.

